



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 25a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—10-24/LEY-00002. Foru Legea, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00041. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan Administrazioan zeinu-hizkuntzak merezimenduetan puntuak emateko aukerari buruz. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00044. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak defenda ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00051. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itzarote-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00052. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adimen Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sor ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murriztu eta bertan sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozesuak azkar ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00035. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurri guztiak har ditzan, Marokotik datozen nekazaritzako produktuen inportazio oro urgentziaz gerarazteko, Marokotik datozen marrubietan A hepatitis egoteaz ohartarazten duten osasun-jakinazapenen larritasuna ikusita. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago jauna gaitzesten baitu, zenbait herri lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoengatik. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/PES-00021. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako destinatorik gabeko irakasle espezialisten lan-egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

10-24/LEY-00002. Foru Legea, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernu-ko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko apirilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua emateko Foru Legea onetsi du.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, 2024ko aurrekontuan
Nafarroako Gobernuko zenbait
departamenturi 539.000 euroko aparteko
kreditua ematekoa**

ZIOEN AZALPENA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak igorritako txostenetan adierazten da 2024an zenbait gasturi aurre egin beharko zaiela

eta ez dagoela horietarako aurrekontu-partida egokirik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen duenez, baldin eta hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat egin behar bada aurrekontu indardunaren kargura, krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru-lege baten proiektua bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditua ematekoa. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen denez, edozein gastu-programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal da aparteko kreditua, are Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru-lege horren xedapenak direla-eta berriaz onetsitako kredituetatik datozenekin ere.

1. artikulua. Aparteko kreditua ematea.

Guztizko zenbatekoa 539.000 eurokoa duen aparteko kreditua ematen da 2024rako aurrekontuan, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrianak finantzatzeko.

Kreditu hori honako aurrekontu-partida hauei aplikatuko zaie:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
100000 10100 1220 923902 Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak. SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa	225.000
100000 10100 1600 923902 Gizarte Segurantzaren SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa	73.000
210001 21300 7609 2616S5 Faltzesko Udalarentzako transferentzia: zezenketetako harmailak hobetzea	25.000
210001 21300 7609 2616S6 Muesko Udalarentzako transferentzia, Kale Nagusiko tarte bateko zoladura berri eta zubia konpontzekoa	30.000
320000 32200 2276 261103 Belaunaldiarteko lankidetzaren proiektuaren bideragarritasunaren azterlana	18.000
320000 32200 2276 261104 Bidezainen etxebizitzaren bizitegi-potentzialtasunari buruzko azterlana	18.000
A20002 A2500 7816 335104 Punto Gunea elkartearantzako dirulaguntza. Taldeentzako gela intsonorizatuak egokitzea	20.000
A30001 A3100 4609 432109 Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Pilotaren Interpretazio Zentroa	100.000
A30004 A3400 4609 432102 Aezkoako Batzordearekiko hitzarmena. Aezkoako Kultur Ola kudeaketa	30.000

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

539.000 euroko aparteko kreditu hori honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kontura finantzatzeko da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
F00000 F0100 1220 921102 (E) Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	298.000
A50000 A5000 7609 3361E1 (E) Faltzesko Udalarentzako transferentzia: futbol-zelaiko harmailak hobetzea	25.000
210001 21300 7609 2616P9 (E) Muesko Udalarentzako transferentzia, Virgen de la Cuesta kaleko zoladura berri eta zubia konpontzekoa	30.000
320000 32200 4609 261100 (E) Tuterako Udalarekiko hitzarmena, belaunaldiarteko lankidetzaren proiektuaren bideragarritasun-azterlana egitekoa	18.000
320000 32200 4609 261102 (E) Tuterako Udalarekiko hitzarmena, bidezainen etxebizitzaren bizitegi-potentzialtasunari buruzko azterlana egitekoa	18.000
A20002 A2500 7709 335100 (E) Punto Gunea elkartearantzako dirulaguntza. Taldeentzako gela intsonorizatuak egokitzea	20.000
A30001 A3100 4609 432109 (E) Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Pilotaren Interpretazio Zentroa	100.000
A30004 A3400 4609 432102 (E) Aezkoako Batzordearekiko Hitzarmena. Aezkoako Kultur Ola kudeaketa	30.000

3. artikulua. Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legearen zenbait aurrekontu-partidaren izena aldatzea.

1. "210001 21300 7609 2616L3 (E) Armañantzasko Udalarentzako transferentzia: eraikinak egokitzea funtsezko zerbitzuetarako" dioen tokian hauxe esan behar du: "210001 21300 7609

2616T0 Armañantzasko Udalarentzako transferentzia: eraikinak egokitzea tabernarako eta dendarako”.

2. “210001 21300 7609 2616M5 (E) Barañaingo Udalarentzako transferentzia. Departamentuen Etorbideko luminariak aldatzea” dioen tokian hauxe esan behar du: “210001 21300 7609 2616T1 Barañaingo Udalarentzako transferentzia. Kirol Etorbideko luminariak aldatzea”.

3. “A21001 A2400 7609 332203 (E) Tuterako Liburutegiarentzako dirulaguntza, erabilera anitzeko aretoa egokitze” dioen tokian hauxe esan behar du: “A21001 A2400 6054 332202 Tuterako Liburutegi Publikorako ekipamendua”.

4. “210001 21300 7609 2616M4 (E) Hitzarmena Erriberriko Udalarekin. Frontoia eraberritzea” dioen tokian hauxe esan behar du: “A50000 A5000 7609 3361E08 Erriberriko Udalarentzako transferentzia. Frontoia eraberritzea”.

5. “A50003 A5200 4819 336111 Nafarroako Saskibaloiko Federazioarentzako dirulaguntza Gizonezkoen Saskibaloiko talde egituratua proiektua abian jartzeko” dioen tokian hauxe esan behar du: “A50003 A5200 4819 336113 Eguesibarreko Saskibaloiko Taldearentzako dirulaguntza: Gizonezkoen saskibaloiko proiektu egituratua”.

6. “A50003 A5200 4819 336112 (E) Nafarroako Triatloiko Federazioarentzako dirulaguntza: 2024ko Espainiako Triatloiko eta Aquabike txapelketaren antolakuntza” dioen tokian hauxe esan behar du: “A50003 A5200 4819 336114 Triatloiko kirol klubarentzako dirulaguntza: 2024ko Espainiako Triatloiko eta Aquabike txapelketaren antolakuntza”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00041. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan Administrazioan zeinuhizkuntzak merezimenduetan puntuak emateko aukerari buruz

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko apirilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan Administrazioan zeinuhizkuntzak merezimenduetan puntuak emateko aukerari buruz. Erabakia eragin zuen mozioa Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu zuen, eta 2024ko martxoaren 27ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat egin dezan, gorrak, entzuteko desgaitasuna duten pertsonak eta goritsuak ordezkatzan dituzten elkarteekin elkarlanean, neurriaren egokitasunari eta hura baloratzeko beharrezko betekizunei buruz.

Hortik aurrera, eta Funtzio Publikoaren Mahai Orokorraren adostasunarekin, hura merezimendu gisa ezartzeko beharrezkoak diren lege- eta erregelamendu-aldaketak egitea”.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00044. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak defenda ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko apirilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak defenda ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak aldeztu ditzan, Nafarroako toki-entitateek ez dezaten kalterik izan eta beren baliabideak eduki ahal izan ditzaten beren eskumen-esparruko politika publikoak gartzeko”.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00051. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroan itxarote-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko apirilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan itxarote-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Hiru hilabeteko epean Nafarroan itxarote-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, egiturazko neurriak ekarriko dituena.

2. Planeko ekintzak eta itxarote-zerrenden bilakaeraren emaitzak monitorizatzen lagunduko duten adierazleen multzo bat ezar dezan.

3. Osasun Departamentuaren webgunean argitara ditzan, herritar guztientzat modu irekian, plana eta adierazle horien hileroko emaitzak”.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00052. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adi- men Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sor ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko apirilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan sorkuntza artistikoaren prozesuetan Adimen Artifizialaren gaineko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sor ditzan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Adimen Artifizialak artearen esparruan duen egitekoari buruzko hausnarketarako eta elkarrizketarako gune bat bultzatzen dezan sorkuntza artistikoaren, arte plastikoaren, musikaren eta literaturaren sektorearen esparruko profesionalekin batera Nafarroan arte-prozesuetan Adimen Artistikoa erabiltzeko araudi bat garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du artearen esparruan Adi-

men Artifizialaren erabilera arduratsua eta etikoa sustatzen duten ekimenak bultzatzen, bermatuz teknologia hori sormena eta berrikuntza sustatzeko tresna gisa erabiliko dela, artisau- eta sortze-lan tradizionalari kalterik eragin gabe.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du artista, zientzialari, teknologo eta beste profesional batzuen arteko lankidetzaren bultzatzen, Adimen Artifiziala modu sortzailean eta aniztasun kulturala eta ondare artistikoa errespetatuz integratuko duten proiektuak garatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du jarrai dezan lan eta lehiaketa publikoetan Adimen Artifizialaren erabilera prebenitzeari buruzko gomendioak egiten”.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murriztu eta bertan sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozesuak azkar ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko apirilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan behin-behinekotasuna murriztu eta bertan sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozesuak azkar ditzan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2025erako lan publikoaren eskaintzan jaso daitezkeen egonkortze prozesuan hutsik geratu diren lanpostu guztiak, horrela jasotzen baita uztailaren 1eko Foru Legean, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan, bosgarren xedapen gehigarrian, eta halaber jaso daitezkeen

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egiturazko lanpostu hutsak, behin-behinekotasuna % 8ra murrizteko helburuarekin.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu, sei hilabeteko epean langileen ordezkariekin negoziatzean dezan aldaketa bat egitea 347/1993 Foru Dekretuan eta garatzeko foru aginduetan, O-NOZen sartzeari eta lanpostuak betetzeari buruzkoetan, honako helburu hauekin:

- Hautaprosesuak arintzea, ebazteko denborak murriztuz.
- Lanpostu betegaitzetan emandako denbora baloratzea eta haiek definitzea.
- Merezimenduen baremazioa sinplifikatzea, eta indarrean dagoen legediaren arabera jendea Nafarroako bi hizkuntzetan artatzea lehentasuneko helburu gisa bermatzea".

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00035. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurri guztiak har ditzan, Marokotik datozen nekazaritzako produktuen inportazio oro urgentziaz gerarazteko, Marokotik datozen marrubietan A hepatitis A egoteaz ohartarazten duten osasun-jakinarazpenen larritasuna ikusita

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko apirilaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurri guztiak har ditzan, Marokotik datozen nekazaritzako produktuen inportazio oro urgentziaz gerarazteko,

Marokotik datozen marrubietan A hepatitis A egoteaz ohartarazten duten osasun-jakinarazpenen larritasuna ikusita. Mozioa 2024ko martxoaren 15eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago jauna gaitzesten baitu, zenbait herri lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoengatik

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko apirilaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago jauna gaitzesten baitu, zenbait

herri lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoengatik. Mozioa 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00021. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako destinorik gabeko irakasle espezialisten lan-egoerari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako destinorik gabeko irakasle espezialisten lan-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak 11-24-PES-00021 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, oposizio-lehiaketako prozesu batean plaza lortu baina oraindik behin betiko lehenengo destinoa esleitu ez zaien irakasleei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Ulertzen da ezen, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren galderak erreferentzia egiten diela

2022. urtea baino lehen gauzatutako oposizio-lehiaketako askotariko prozesuetako batean plaza lortu zuten maisu-maistren kidegoko irakasleei; izan ere, 2023. urtean kidegoetan eta irakaspostuetan sartzeko prozesua gertatu zen merezimen-du lehiaketa ezohiko bidez eta pertsona horiek guztiek ikasturte honetan lehenengo aldiz hartu dute parte lekualdatze lehiaketa batean. Horrenbestez, txosten honetan ematen diren datuak lekualdatzeko azken lehiaketaren ebazpena eman osteko unean zeudenak dira. Ebazpena maiatzaren 10eko 129/2023 Ebazpen bidez argitaratu zen, zeinaren bidez onesten baita destinoen behin betiko adjudikazioa eta parte hartzaileen eta puntuazioen behin betiko zerrendak argitaratzen baitira.

Jarraian agertzen den taulan ikusgai dago 2023ko irailaren 1a baino lehen funtzionario izendatutako maisu-maistren kidegoko zenbat kidek ez duten behin betiko destinoa lortu izendatuak izan zirenetik, bai eta beren antzinatasuna ere. Datuok 2024ko otsailaren 1ekoak dira.

Kidegoa	Espezialitatea	Hizkuntza	Sartzeko datatik zenbat egun	Zenbat Funtzionario
597	HAUR HEZKUNTZA	E	1248	1
597	ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA	G	1248	8
597	ATZERRIKO HIZKUNTZA: FRANTSESA	E	4901	2
597	GORPUTZ HEZKUNTZA:	G	883	2
597	GORPUTZ HEZKUNTZA:	G	1248	31
597	GORPUTZ HEZKUNTZA:	G	2344	3
597	GORPUTZ HEZKUNTZA:	E	1248	17
597	GORPUTZ HEZKUNTZA:	E	2344	3
597	MUSIKA	G	1248	14
597	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	G	1248	14
597	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	E	883	1
597	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	E	1248	23
597	ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA	G	1248	1
597	ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA	E	1248	3

Gai horri irtenbidea emateko gauzatu diren eta gauzatu nahi diren ekintzei dagokienez, 2018ko Hezkuntza Ituna izenpetu zuten sindikatuen ordezkariak eta hezkuntza administrazioko ordezkariak joan den ekainean osatutako lantaldeak hartutako erabakian jasotzen dira ekintza horiek. Lantaldeak dokumentu bat adostu zuen, zeinean etorkizuneko lekualdatze lehiaketa autonomikoe-tan gauzatzeko jarduketak proposatzen baitira funtzionarioei behin betiko lehenengo destinoa adjudikatzeko prozesua arintze aldera. Dokumentu hori txosten honen I. eranskina da.

Jarduketa horrek irakasle funtzionarioei behin betiko lehenengo destinoa adjudikatzeko intziden-

tziarik izan duen ala ez jakiteko, Hezkuntza Departamentuaren Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko Zuzendaritzaren urriaren 6ko 269/2023 Ebazpen bidez deitutako egungo lekualdatze lehiaketa ebatzi arte itxaron beharko da.

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

